



BERTSO PAPERAK

- 1** Gazte denboran ez izan arren
gu diru askoren jabe
ordun ere bizi egiten ginen
handi nahi askorik gabe
urte batzuek dauzkagunak
gu konturatzen gerade
gaur ez dagoela gure herrian
orduan aina umore.
- 2** Kale guztiak sagardotegi
denak kantatu bertsoak
upel zaharraren zipotzetikan
beteta gero basuak
nola etzaizkit akordatuko
orduko egun gozuak
lehen pake utsa genuen herria
ia erre baidu suak.
- 3** Gu sortu giñan herri maite hau
paraisoa ziñan lehen
urte gutxian gauzak ederki
aldatu dira hemen.
Guk euskaldunok ez ote degu
alkartzeko adiña kemen
gure herriak gure etsaiak
agintzen jarri baino lehen
- 4** Gauza guztiak goranz dijoa
ezer ez da bajatutzen
horregatikan askoren boltsak
ari dirade ustutzen
lasaitasunak bukatu zidan
dena dijoa estutzen
ikusten degun etorkizuna
ez gaitu asko poztutzen
- 5** Ibai eder bat errekatxuak
jira danean mendiak
bide danetan exerlekuak
ere hor daude jarriak
baratza ederrak ziran lurretan
eginak etxe berriak
halare lehengo edertasunik
ez dauka gure herriak.
- 6** Danak korrika txoko hontara
belar goxotik jatera
baina larrea moztu egin da
ematen zaio tankera
itxi dituzte burni fabrikak
kurtidua ta papera
ta hara ustu janari goxoz
beteta zegoen platera.
- 7** Orain hainbeste diru zale ta
orain hainbeste gorroto
bainan oroitu gaitezen ondo
nork egin degun pekatu,
pobreak beti gaiztotzat joaz
eta aberatsa santu
haundiak oker dabiltzanean
txiki onik ez eskatu.
- 8** Hainbeste gazte lanikan gabe
ta ez bada irabazten
badakizute zenbat behar dan
gaur jantzi eta bizitzen
goxo ibili diren gauzak
hasiak daude gazitzen
nork bera xuxen ibiltzen baino
errexago da agintzen.
- 9** Jainkoak baino maitatuago
hartu ta gabiltz dirua
pentsatzen nago horrexek
galdu behar duela mundua
orain dagona hautsi ta erre
kale danetan tiroa
horrek tristura ematen du eta
negar egiteko gogoia.

*Pablo Zubiarrain Otxotorena.
Hernani-Txiki*